

KONTROL MOZIOA, UDALAK ARARTEKOARI EZ LAGUNTZEA DELA ETA

EH BILDU udal taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrék, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, **KONTROL MOZIO** hau aurkezten du, Udalak Arartekoari ez laguntzea dela eta. Mozioa Lurralde Garapen eta Planifikazio Batzordeak azaroaren 16an egindako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Orain asko ez dela jakin dugu **Arartekoaren 2020IR-2329-18 Ebazpena, 2020ko urriaren 8koa**. Ebazpenak dio Uliako Auzo Elkarteak kexu dela Udalak ez diolako erantzun Uliako Mintegien Hiri Antolamenduko Plan Orokorra aldatu eta hiriko parke bihurtzeko eskaerari.

Ebazpenak haxe dio: 2018ko abenduaren 7an, **Arartekoak informazioa eskatu zion Donostiako Udalari** elkarte horrek egindako eskaeraz. Hala ere, **lehenengo eskaera hura egin zenetik 20 hilabete baino gehiago pasatu diren arren, Arartekoak ez du Donostiako Udalaren erantzunik jaso.**

Ebazpen horrek, dakartzan gogoeten artean, honako hau dio 1. puntuan: **aurren-aurrena, Arartekoak esan behar du Donostiako Udalak ez diola erakunde honi lagundu, eta hori ez dator bat eskatzen zaizkion datu, agiri, txosten edo argibide guztiak lehenasunez eta presaz aurkezteko legezko betebeharrarekin (Ararteko erakundea sortu eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 23. artikulua)**. Aurrekarietan azaldutako kontakizunaren arabera, Udalak ez ditu bete erakunde honekin dituen legezko betebeharrak, erreklamazio hau tramitzeko behar den informazio eta lankidetzak eskaerari ez dio-eta erantzun.

Ondoren, honako hau dio: **Kasu honetan, erreklamazioaren xedea horixe zen, salatzea Donostiako Udalak ez ziola erantzun elkartearen eskaera bati** (Donostiako HAPOk Ategorrieta-Uliako mintegi-parkerako agintzen duena aldatzeko espediente irekitzea).

Arartekoak Donostiako Udalari orain dela gutxi bidalitako ebazpen baten bidez adierazi du –egindako eskaeraz eta haiei benetan erantzuteaz– **administrazio publikoek, dagokion administrazio prozedura egin eta beti bermatu behar dutela herritarrekin izandako harremanetan jarraitutako izapideen trazabilitate egokia izatea.**

Administrazio prozedura orokorrak jartzen ditu administrazioaren jardura antolatu, izapidetu eta fiskalizatzeko kontuan hartu beharreko jarraibideak, **administrazio onaren irizpideen arabera.**

Herritarrek administrazio ona izateko eskubideak administrazio publikoei dakarkien betebeharra da haiei aurkeztutako idazkiak jaso dituztela adieraztea, dagokien prozedura ofizios bultzatzea eta planteatutako arazo eta errekurtsio guztiei zentzuzko epean erantzun kongruente eta arrazoitua ematea.

Eta administrazio onaren printzipio horiek aplikatu behar dira erreklamazioan azaldutako kasuan eta antzekoetan ere; hau da, elkarte batek Donostiako Udalari eskatzea begiratzeko, Udalak dituen eskumenen baitan, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra aldatzea komeni den.

Arartekoaren txostenaren azkeneko ondorioa hau da: azkenik, **Arartekoak deitoratu egiten du Donostiako Udalak Arartekoaren erakundeari ez laguntzea, Arartekoak Eusko Legebiltzarraren mandatari gisa duen eginkizuna egiten zailduta, Administrazioaren legez kanpoko edo bidegabeko egintzak zuzentzea, alegia.**

Hirigintza Sostengarriko zinegotzi-ordezkaria interpelatu genuen, eta bere erantzuna izan zen arrazioa genuela, baina horrez gain, ez zigun beste inongo azalpenik eman. Besteak beste, ez zigun erantzun egindako galdera hauei:

- Udal Gobernuak zergatik ez du administrazio publikoa den aldetik Arartekoarekin lankidetzan aritzeko duen betebeharra bete eta Arartekoak eskatutako informazio, argibide edo agiri guztiak eman hari?

- Uste al du Udal Gobernuak Arartekoaren txosten horretan aipatutako gertakariekin behar adina betetzen dela herritarrek administrazio ona izateko duten eskubidea?

- Udal Gobernuak uste al du, Arartekoaren erakundearekin lankidetzan aritzeko betebeharra bete gabe, administrazioaren legez kanpoko edo bidegabeko egintzak zuzentzen saiatzeko lanean ari dela?

Horiek hala direla, behean sinatzen duen zinegotziak honako KONTROL MOZIO hau aurreratu du:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari bete ditzala dauzkan betebeharrak, eta ildo honetatik, Arartekoaren informazio eskaerak jasotzen dituenean, lehentasunez eta ahal bezain azkar erantzun diezaiela.

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari herritarren iradokizunak, eskaerak edo proposamenak erantzun ditzala, justifikatuz zergatik ontzat ematen dituen edo zergatik ez den posible edo komenigarria onartzea.

3.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari laguntza osoa emateko Arartekoari haren betebeharrak behar bezala bete ditzan.

Donostia, 2020ko azaroaren 20a

Sinatua: Ricardo Burutaran Ferré,
EH BILDUren udal taldeko zinegotzia